



Irabazterik ez du lortu Tolosa CF-k Berazubín

LEHENA ▶ Hirugarren Mailara igo denetik lehen partida zuen etxean; bana berdindu du Agurainen aurka

ASMATU EZ ▶ Gol aukerak izan bai, baina sarera bidaltzen jakin ez zutela onartu dute arduradunek ▶ 6



Tolosa CF-k eta Agurainek bana berdindu zuten atzo. IMANOL GARCIA



IÑIGO TERRADILLOS

Saharako haurrei egindako adio festa

TOLOSA ▶ Ostegunean abiatuko dira, bi hilabete eskualdean pasatu ostean, beren herrira; Plaza Berrian agur esan zieten atzokoan ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Lizartza eta Elduain, jaietan murgilduta

Egitarau zabala dute gaurko bi herrietan ▶ 7




LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozeramikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilarriak	- Estanpaziozko teknikak

Santa Klara, 1 behe - 20400 Tolosa Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 67 01 14 Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552 Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com



clínica
Asunción
clínica

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

**San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24**

GUTUN@K ▶

TAOren isuna
eta nire ordu
erdia

Ostegunean autoa Tolosan, Araba etorbidean neukan aparkatuta. Auzoko biztanleentzat bereziki gordetako aparkalekuak daude han, ni ez naiz auzokidea, autoa utzi nuen eta isuna jarri zidaten. Kotxea izateagatik urtero zerga ordaintzen dugu eta, horretaz gain, aparkatzeko ordaindu behar izatea ez zait batere egokia eta justua iruditzen, baina gaurko gaia ez da hori, isunaren ordainketa saioa baizik.

Hala, isuna hartu, bertan jartzten duena irakurri eta TAOren makina batera joan nintzen, tren geltokiko batera. Isuna baliogabetu nahi baduzu, hamar euro sartu behar dituzu makinan, txanponetan. Hasi nintzen sartzen: bi euro, lau... eta makinak ez zidan euro gehiagorik onartu, eta lehen sartutakoak itzuli egin zizkidan. Berriro saiatu eta berriro gauza bera (sikiera, euroak itzultzen zizkidan). Saiatu berriro eta batere ez. Horrela minutu batzuetan. Makina ez zegoen ondo, antza. Non da beste makinarik? Hasi begira eta hantxe, gertu antzean. Hara joan, isuna baliogabetzeko hasi euroak sartzen, bi euro, lau... eta ez, makinak ez zidan euro gehiagorik onartzen, eta lehen sartutakoak itzuli egiten zizkidan. Horrela beste minutu batzuetan.

Ordu laurdena pasa neraman horrela. Ia gaueko bederatzia ziren, herrira joan beharra neukan —ez naiz Tolosakoa, ez Tolosaldekoa—, ez nuen Tolosara itzuli behar hurrengo egunetan eta zer egin? Isunean Tolosako Udalaren zigilua dagoenez, deia Tolosako Udaltzaingora. Kasua azaldu eta udaltzainak, deitzeko TAOra, hauek ermaten dutelako kontu hori. Isunean ez da ageri TAOren telefono zenbakirik. Udalaren zigilua bai esan bezala, eta udaltzainari esan nion ea kontua konpontzerik bazuen. Bere ustetan, erraztasuna eman zidan: azaltzeko Udaltzaingora. Nik ezetz, ordurako ordu erdia neramala galduta, ez zela nire errua makina matxuratuta egotea eta etxera joan behar nuela. Ez zidan besterik esan hark.

Ez dakit zer egin, eta ez dakit zer egiten duten isun (injustu) horiek jartzten, gero makinak izorratuta badaude.

Eta, gainera: nire ordu erdi hori zeinek ordainduko du?

▶ ENEKO KARRERA

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

‘Le vent nous portera’



2003ko uztailaren gau batean, Bertrand Cantat-ek neska laguna jipoitu zuen; hil arte. Albisteak ez zituen lau edo bost lerro eta bi edo hiru zenbaki-estatistika moralki ezin higienikoago baino gehiago edukiko Frantziako egunkari serioetan, baldin eta Bertrand Cantat ez balitz Noir Désir taldeko abeslaria, baldin eta neska laguna, Marie Trintignant, ez balitz aktore ezaguna Frantzian. Ez dut, halere, Cantatek egindakoaren moralitasunik ezaz

jardungo, ez naiz ariko emakume gehiegik jasaten duten infernuaz. Nahikoa editorial eta artikulua idazten dira gaiari buruz egunkarietan eta, ez dakit, sarri pentsatu izan dut begi bistakoaz sobera idaztea, arazoari duen garrantzia kentzea dela.

Kontua zera da, artikulua idatzi nahian ordenagailuaren parean nengoela, Noir Désiren *Le vent nous portera* abestia entzun dudala bozgorailutik. Abestia izugarri gustatzen zait. Zera diote haren hitzek, dena dela gertatu ere, horiek ere haizeak eramango dituela. ‘*Le vent nous portera*’, gu ere haizeak eramango gaitu. Hain gara hutsalak, hain dira hutsalak gure inguru eta ekintzak, ezen haizeak horiek guztiak eta gu ere ezabatuko baikaitu. Eta bat-

batean zera bururatu zait, Cantatek berak idatzitakoari buruz orain zer pentsatzen duen jakitea gustatuko litzaidakeela. Sentitzen duen errua ez baitu haizeak eramango. Barrote artean, haizeak ez duela egingakoaren oroitzapena hain erraz eramango ikasiko zuen seguru asko, dena ez dela berak abestu bezain hutsal.

Eta hori, horiek bururatu eta artikulua hartaz idaztea okurriratu zaidala. Azken batean, hutsaltasunaren eta tragikotasunaren artean aurkitzen dela gure egunerokoa. Akaso, hutsal eta tragiko ez dira gauzak neurtzeko geuk erabiltzen ditugun baremoak besterik. Ez dakit, akaso une bakoitzean baremo egokia aukeratzen jakitea izango da gauza askoren gakoa.

EGUNEKO IRUDIA ▶



IRATXE ETXEBESTE



Usabal kirolgune berriko lehen partidua, atzo arratsaldean

Usabal kirolgune berria zabaldu dutenetik —astelehenean izan zuten herritarrek lehen aukera instalakuntza berriak ikusteko— asko izan dira entrenamendu saioak bertan egiten hasi diren kirolariak. Belar artifizialeko zelaian ez ezik, balio anitzetarako atondu dituzten kantxetan ere aritzeko parada izan dute azken egunotan. Partidu ofizialak, ordea, ez dira oraindik hasi baino egin, eta Usa-

bal kiroldegian jokaturako lehena atzo arratsaldean izan zen: Tolosa CF-k Miguel Angel Lorz, Txipi zenaren omenez antolatutako lehen memoria. Eskubaloiko Ohorezko Mailan ari den Bidasoaren eta Ohorezko Maila B-n jarduten duen Villa de Arandaren arteko norgehiagoka ikusteko aukera izan zuten kirolgune berrira hurbildu zirenek —argazkian—. IMANOL GARCIA

IRITZIA ▶ ENEKOITZ ESNAOLA (TOLOSA HERRIA HEDABIDEETAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA)

Joxemi Saizarren konpromisoa

Hona hemen hiru data garrantzitsu edota funtsezko euskarazko prentsaren historian, sektorearen garapena, oinarriak, zailtasunak eta konpromisoa ikusteko:

—1937ko urtarrilaren 1a: *Eguna*-ren sorrera, Espainiako Gerra Zibilaren garaian. Euskarazko lehen egunkaria izan zen, EAJk sustatuta. Sei hilabete iraun zuen (ekainaren 13a arte); Euskal Herria gerran Francoren aldekoen eskuetan erori zen arte.

—1990eko abenduaren 6a: *Euskaldun Egunkaria*-ren sorrera. 2003ko otsailaren 20an Espainiako Estatuak itxi egin zuen euskarazko egunkari nazionala, eta *Berria* sortu zen 2003ko ekainaren 21ean.

—2001eko abenduaren 18a: *Tolosaldean Eguneroko*, euskarazko lehen eskualde egunkariaren sorrera. *Egunkaria*-ren itxieraren ostean, TOLOSALDEKO HITZA izena hartu zuen eskualdeko kazetak (iaz LEITZALDEKO ere bai), bitartean *Galtzaundi* izena eduki bazuen ere.

Eta, hain justu, hiru garai horietan, ereiten, sortzen, egiten, gidatzen, tolosarrek ardura handia izan dute:

—*Eguna* sortu aurretik, 1929-1930ean, Xabier Lizardi izan zen eragile nagusia euskarazko prentsa aldarrikatzen (Lizardi, Zarautzen jaio zen arren, hama bi urte zituenean Tolosara etorri zen bizitzera). Garai hartan bazegoen egunkari abertzale bat, *Euzkadi* (EAIrena), baina gazteleraz zen. Lizardik esaten zuen euskarazkoa sortu behar zela. Gainera, esaten zuen erdarazko egunkariekin lehiazteko modukoa izan behar zuela, kazeta estandarra eta kalitatekoa. Bi oinarri aipatu zituen: euskaltzalea izan behar zuela eta independentea alderdi politikoetatik. Proiektua lantzen hasi zen, eta izena jarri zion euskarazko balizko egunkariari: *Bai*. Elkartea osatzen hasi zen, baina garai hartan elebitasunaren aldeko mugimendua ere bazegoen, horretaz gain Lizardik sos askorik ez zuen bildu, eta azkenean haren proiektua bertan behera erori zen. Dena dela, dagoeneko jendea hasi zen ikusten

euskarazko prentsaren beharra, eta oinarriak ere jartzen hasiak ziren.

—*Egunkaria*-n, hirugarren urterako hartu zuen Martxelo Otamendik zuzendari postua, eta gaur egun ere hura da *Berria*-koa. Hor ere, bi egunkari oinarriak: euskaltzalea, kalitatekoa, independentea...

—*Tolosaldean Eguneroko*-ren sorreran ere beste tolosar bat zuzendari: Joxemi Saizar. Gero ere bai TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN. Horietan ere oinarriak, beraiek.

Aipatutako lagunek une zailak bizi izan dituzte lan horietan, baina aurrera egin zuten/dute:

—Lizardik korrontearen kontra egin behar izan zuen. Baina euskarazko prentsaren zutabeak jartzen hasi zen.

—Otamendik, hasieran, *Egunkaria*-ri egiten zioten blokeo instituzionala zeukan, eta gero Espainiako Estatuaren ekintza ezdemokratikoa jasan zuen (itxiera, atxiloketa, tortura...), baina euskarazko egunkari nazionalak ez zuen etenik izan, eta orain behin ere baino gehiago irakurtzen da.

—Saizarrek ere hasiera gogorra izan zuen *Tolosaldean Eguneroko*-n: eskualdeko udal askotan gehiengoaren aldeko tasunik eza diru laguntzak ematean eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena ere ez, banaketa konpliatua (egunero milaka ale etxeetara, baserrietara)... Hala ere, urtebeterako egoerari buelta eman zion *Eguneroko*-k: erakunde publikoan diru laguntzak, publizitatean esparru berrietara hedatu zen, zazpi mila aleko tirada, harpidedun ordaintzaile ugari...

Proiektu handia

Ez zen *Tolosaldean Eguneroko*-rena izan euskarazko herri prentsan aurreneko esperientzia. 2000ko ekainean, adibidez, Hernanin, Dobera Euskara Elkartaren ekimenez, tokiko lehen egunkaria argitaratu zuten: *Hernaniko Kronika*; orri batekoa. Aurretik, 90eko hamarkada hasieran, herri aldizkariaren sorrera izan zen, eta hori ere ezin ahaztu. Baina

euskarak herri informazioan, prentsan, HITZA proiektuarekin beste era bateko pausoa eman du, zabalagoa eta eragin-korragoa, eskualde askotan zabaltzen ari delako (gaur sei HITZA daude, urte bukaeran zazpigarrena sortuko da, eta proiektua hazten joango da euskal lurraldeetan), egunero milaka etxetara sartzen delako (ia 50.000 ale orain), egunero tokian tokiko produktu informatibo erreferentziala delako, egunero milaka euskaldun euskaraz irakurtzen jartzen dituelako... Egunero hori dena.

Lizardi gerra aurretik ereiten hasi zena, *Eguna*-rekin gauzatu zen nolabait, honi faxistek moztu zioten bidea, frankismoaren ondoren *Egunkaria*-k hartu zuen lekukoa, eta gero, leku denetan bultzatzaileetako egunkari nazionala izanda, eskualde kazetak sortzen hasi ziren, 2001ean. Garapen hori ikusita, tokian tokiko egunkariaren sorrera ezin da bere horretan soilik aztertu eta ulertu. Katearen ondorio izan dira.

Erronkari heldu

Baina nonbaiten behar zuen eskualdeko lehen egunkariak. Eta aurrenak sufritu egin beharko zuen, aurrena izan ohi delako zailena, esperientzi berri batean eskarmendu ezagatik, baina baita batzuen aitortpen eta konfiantza faltagatik ere. Tolosaldean izan zen aurreneko hori, eta funtsezko proiektu honetako lehen fruituaren zuzendaria (orduan *Tolosaldean Eguneroko* zen), Joxemi Saizar. Berak hartu zuen konpromisoa.

Ez merituz makalarekin! Lehen aipatutako zailtasunez gain, bestelakoak ere baziren, eta gehiago ere izan dira:

EUSKARAZKO PRENTSAN

Saizarrek une zailetan ere beti heldu izan die ardura postuei: 'Tolosaldean Eguneroko'-ren sorreran, 'Egunkaria'-ren itxieran...

—*Tolosaldean Eguneroko*-ren zuzendari izendatu zutenean, Saizarrek eskualdeko euskarazko prentsan bazuen esperientziarik, *Galtzaundi* aldizkariaren sortzaileetako izan zelako eta koordinatzaile ere bai urte askoan. Baina ez zuen ezagutzen egunkari baten funtzionamendua, nahiz eta 11 urte lehenago, *Egunkaria* sortu zenean, han urtebetez egona zen; kazetaritzan, ordea, egunkaria egiteko moduak asko aldatu ziren 11 urtean eta Saizarrek ez zuen hori bizi izan. Gainera, *Tolosaldean Eguneroko*-ren lan taldea ia eskarmentuarekin gabekoa zen (gero ederki funtzionatu zuen). Saizarrek erronkari heldu egin zion.

—Beste zailtasun bat: egunkariko zuzendaria zen, baina baita ikastolako irakaslea ere. Goizean goizetik eguerdia arte irakasle, bazkaldu eta *Eguneroko*-ra zuzendari postura, gaua arte. Egun luzea. Handik bi urtera, eta euskarazko prentsaren alde hobeto egitearren, lanuztea hartu zuen ikastolan eta egun osoz hasi zen HITZAN zuzendari, nahiz eta hemen ikastolan egun osoz baino baldintza kaskarragoak eduki (bi hilabeteko oporrak ez, jai egun, zubi eta asbesturua askotan lana, dirua...) eta bera ere 40 urteren bueltan ibili.

—Beste zailtasun bat, hari ere etorri zitzaiona: *Egunkaria*-ren itxiera. Egunkari nazionalak *Eguneroko* mantxeta hartu zuen, eta Saizarrek arrisku pertsonalei bizkar eman eta egin beharrekoa egin zuen orduan, egunkari nazionalak etenik izan ez zezan (Amando Hernandez, Galtzaundi Euskara Taldeko orduko lehendakariak ere bai; gero atxilotu egin zuten, Tolosan).

Bidea

Euskarazko prentsak oraindik ez ditu behar bezalako azpiegiturak eta baldintzak, baina anbizioa du, eta aurrera egiten duenez eta hazi egiten denez, jende berria sartzen da proiektuan, aurrekoek markatutako bidea segituz. Saizarrek orain utzi egin du hemengo HITZA, eta Leire Montes jarri dugu zuzendari (bera ere tolosarra). Berak eta lan taldeak badakite bidea zein den: Saizarren konpromisoaren bidea, euskal prentsa aurrerapausoak ematen segi dezan.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

BIDAIAK ▶

Che Guevararen urratsetan

1951eko abenduan Ernesto Guevara eta Alberto Granadok euren bizitza aldarazi zuten bidaiari ekin zioten, motorrean. Haien urratsei jarraiki ibili dira berriki Angel Cuervo eta Fabiola Jubin tolosarrak

ANGEL CUERVO

«Buenos Aires, Buenos Aires querido...» Carlos Gardelen zuten doinuak beste mundu batean fokatu zituzten. Mari-txoaren 25a zen, eta, noski, Argentinako hiriburuan genuden. Abentudik martxoan bitartean, munduaren beste muturrean, Mekong ibaiaren inguruko lurraldeak ezagutzen ibili ondoren, oraingo honetan, beste helburu batek erakartia iritsi ginen lurralde hauetara. Gure ametsa zera zen: Che Guevarak eta bere lagun Alberto Granadok 1951. urtean Hego Amerikan barrena hasialako bidaiaren jarraipena modu berresan egitea, motorrean!

Buenos Airesko giroak guz-tiz makeminduko bagintzen ere, bagintzen gogoia gure hasierako helburuari tinko heltzekoa. Hala, autobusa hartuta, Córdoba hirira abiatu ginen. Hir horretan, bizt izan ziren Ernesto eta Alberto bere gaste garaian, eta handik hasi zuten 1951. urtean Hego Amerika zeharkatuzera eramango zuten bidalia. 50 urte geroago, zuri zepokigun hauen pausoak jarraitzea.

Cheri gertatu bezala, guri ere kosta zitzaigun martxan jartzea. Arazo teknikoak baino gehiago burokratikoak izan zireni Denda asko bistaratu, eta bigarren eskuo tresneria saltzen duten aldiokari eta eguren-kari pila bat bogeratu ondoren, azkenean, topatu genuen gure gustuko motora: garai bateko Txekoslovakian egindako JAWA 500 bati. Haurrak hain adierazten ez bazuen ere, eta, agian, animoak hartu nahian, gure ere Poderosa izenez jarri genuen. Erneotek esgi bezala, Motorraren paperak eguean jarri zera sufirikariora izan zen. Argentinako sistema itzazpari burokratizatua dago, eta edozein gauza erosi ahal izateko, paper piloa behar izaten da. Gainera, paper bakoitza lortu



Argentinan, Angel Cuervo eta Fabiola Jubin abenturazale tolosarrak Che Guevararen urratsek jarraitu zituzte, motorrekin. FABIOLA JUBIN

ahal izateko, amarienik gabeko larrak itxaron behar izan genituen. Gure ondoin lasai asko itxaroten zutenek halaxe esaten zuten: «Esto es Argentina Che, aquí siempre hay que esperar». Astebete tirabiraka ibili ondoren, azkenean lortu genuen! Beraz, parrila, sorbaldaireko euskarrira eta bagajiea eramatekoarekin motora prestatu ondoren, martxan jarri ginen. Hurrengo egunetan, Ernesto Guevarak bere bidaiari idatzit zuten Diario de viaje egunko-ko izango zen gure gidaliburu. Lehena jomuga: Rosario.

Rosario

Liburuen arabera, Ernesto Guevara, Rosario hiriko Entre Rios 480an iritsi ginenean, ordea, ez zegoen inongo seinale-rik hainko pertsonaia famatuaren jaiakelua izan zela adierazteko. Etxebizitzan sartzeko lan zegoen hilabetez beti gidatuta gentionean, Ernestoren jaiakel-

kuaren inguruko bere teoria bota zuten. Guregana hurbildu zuten beste batek ere berea eman zuten, eta hala, taldera elkartu zen bakoitzak Cheren jaiotzeran inguruko hipotesi desberdina eskaini zigan. Pixkanaka, hainbat biziagunaren arteko txutuzumtu, ideia, teoria eta aukeren gure bihurtu zen eta hartako sarrera. Azkenean, ezer gutxirik alera gabe agurtu genuen han bilidunako jendea.

Pampa

Motorraren gainean, Argentinako Pampeko ingururenez gatzeko kileuputu zoragarria genuen. Albo batean eta bestean ikusten genituen amarien-rik ez zuten nekazari lurrak eta zelaiak non ehunka zaldi, ardi eta behi sakabanatzen ziren. Gaucho izeneko zaldun bakari eta abeltzariak dira lurralde horien irudirik ezagunena. Gaur egun hiztundua mota hori desagertu baldin badago ere, gaur abeltzainen bilotzean dago beti gaucho izatearen erroa, eta ospakizun bereizte-ri berritu egiten dituzte garaik bakoitza ohihurt. Urte osoan la naren amatera modura, zeko- rren markatze eguna da festa nagusia. Bolsoadora tomono tramankulekin gaudua har- rapatzea, zaldi lasterlekak eta zaldi gaineko zinta jokaki, jai- tzi tradizionalak, dantzak, abesti alaiak, guruzten erre- tako haragi goxoa, Mendoza-ko txinkizako ardo ederra, eta,

noski, mata-hartzea dira gau- cho-en ospakizunetan egin- desteko osagaiak.

Lehen otopoza

Buenos Airesen bueltan gine- lla, gure bidalia eta Cheren ba- berri egite ziren: Hego Amerika ezagutzaz zuten helburu haiek, eta guk beren bilbidetara osatu nahia genuen, hasik ezagutu ez zituzten Uruguay, Brasil, Para- guai eta Bolivia zeharkatuz. Hon bidai Tinkasa aintzira sa- kratuan elkar-tulo zen, horrela, Hego Amerikako kulturaren eta lurraldearen ezagutzaren zirkuluzentzira moduko osoa- tuz. Lehen abalegina, ordea, ustela izan zen! Rio de la Plata igaro eta barkuan pasatu nahi genuen Uruguaya, eta mugan ezeko birbila jaso genuen. Bi astean bildu genituen paper eta esgi gutxiak ez ziren nahikoa! Adusako arduradunen arabera, inongo kanpotarrek ezin zuten Argentinako bidalgua baskin herrialdeetara atera. Ustekabe galanta izan zen hura, baina, hala ere, esperan- tza gaituz gabe beste muga ba- tekin sailtzea ezabaki genuen. «En Argentina todo es posi- ble» esaidari eutsirik, iparral- derako bidala hartu genuen. Parana eta Uruguay ibai han- dien zeharkaldia jarraituz, iguazu ur-salbaran abiatzen.

Parana eta Uruguay ibidoen

Tigre da bi ibaiak sortzen du- ten delta zabaleko hiritik bere- ziena. «Porteñoen» asteburu- ko irteera nagusia da eta mun- duko arrandiari hoberen go- tortekoa. Hango kanal sarean, naturak bere nagusitasuna hartuko du, eta gizaikak berak ezarritako mugak gainditzen ditu. Parana ibai ertzeke toki zora- garrri batean jarri genuen lota- rako dena. Iluntzearekin ba- teta, ibaiaren mugimendua ez- hartuen joan-erortzak izan zi- ren gure afariko gonbidatu ber- riek. Olotzko laurak aldera zirenean, kontratuari ginen ibaiaren maila dezente igo zela eta ura gurgandik nahiko hurbil- dena. Alferkeria gutxiak al- de batera utzi eta toterri baten gainean ezarri genuen bertiro ere dena. Toki hau segurua- goe zabalosen, lo lasai hartu ge- nuen bertiro ere. Egunesta- rekin altxa ginerako, ordea, gure egoeraren larritasunaz kontratu ginen. Batak gorak- a egiten jarraitzen zuten, eta gure toterorra Parana ibai barneko uhartetara bihurtu zegoen. Egoera larria zen, gu oraindik ere atera ahal ginen handik, baina eztingo genuen inolaz ere gure motora handik atera!

Urak goratze gora jarraitzen zuten, eta, gure ezina nabaria zenean, Maria Santisimak lu- ganduta edo, hainko agertu zi- ren hiru gaste Laguntza eskatu eta berehala etorri ziren gure mesedean. Oso notzibunkia gertatzen den fenomeno del- ta san zigtutan, eta gu hasiak gi- nen pertzalten biunama Thui- landian bizt ondoren, gu eta



Uruguaiana. Brasl eta Argentina arteko muga punturik garrantzitsuenetako, Brasl inguruan entzuten diren delinkuentzian, lapurketen eta beste antzeko kontuen irudi da. FABIOLA JUBIN

uraren artean ez zela oso ha- rreman onik. Orduan, burura zetorkidan Zambian nenpola fraide itzandak botekeasunda- koa: «Fedea beti eduki behar da, gauzak ezin obrerago dau- denean beti hartzen ditue ho- berako bidetia». Eta halaxe ger- tatu zen, bidaiarekin jarraituz bertiro saiatu ginen Uruguay sartzen, eta orduan ez genuen inongo arazorik izan. Beraz, Hego Amerika motorrean eza- gutzen jarraitzeko ametsak au- rrerat jarraitzen zuten.

ARGENTINAN

Edozein gauza erosi ahal izateko paper pila bete behar izaten da; sistema izugarri burokratizatuta dago

URUGUAIAN

Lurralde hauetako jendearen borondate eta elkartasuna ederki ezagutu genuen mota matorratzen zenean

BRASILEN

Paraguairik in lotzen duen zuzena iristen, zorabuna irudituz zitzaigun muga; jende andana batetik bestera

musla esatea, agian, gehiegitho esatea, Caprichosa izena jartzea ere pertsona genuen.

Hori bai, lurralde hauetako jendearen borondate eta el- kartasuna ederki ezagutu ge- nuen. Batean, quad botekin bultzatuz egitez lagundua zigiten mota martxan jartzen, beste- an, sua prestatuz erakutsi zigi- ten motorren baxiak berre- tozko modua, beste behin, er- leak zeramatzan kamioi gidari batek eskaini zigan motora kamioi gaisaren eramatea. Bata eta besteren artean, Fabik mo- rriak izaten zituen motorrari bultzatuz egiteko, baina, hala ere, bidaiak aurrera jarraitzen zuten.

Dena ez zen ederra, ordea, azken egunetan beti genuen motorrekin arazo mekaniko- ren bat, eta, noski, errepide ba- kartari horietan, edozein kome- dia txiki arazo larri bihurtzen zen. Gauza da, Uruguain sartu ginetarik egunero izaten gine- la guraieren baten. Beraz, mo- torrean aurrera jarraitzen ge-

ri erotiko baterako zirela esan zigituen, ez genuen halakorik espero gero! Gauza da handik atera eta 900 metro eginak besterik ez gertu beha, buxiak erre egin zitzaizkionko motora- ri. Batak dak zergaitik!

Berriro ere motora honda- tuta errepidean botata gende- lla, gure salbatzaileak apaiz mokamko bat izan zen, hui da, batzuetan mekaniko moduan ezin bilbitzen zen gizona. Jaiakoa- ren laguntza eta urteetako es- perientziari esker, motora be- rritz ere martxan jartzea lortu zuten, eta, gainera, jaiakoaen beldinapenak eta bermea ge- nuen! Beraz, animoz beterik Brasil sartu ginen.

Bizka bala ere, beldinapen- ak balo izan ginen, eta, Brasl- en sartu ginetarik, motora ondo jartzen hasi zen. Sanba- mukaren domak edozer jar- tzen du mugimenduan, eta gu ere, behingoz, ondo josten ha- siak ginen. Bidaiaren helmuga ikusaren arteko zerbait, baina ez askatasun gurtzekin. Gaine- ra, herrialde bakoitzaik babu bere hizlagunarekin komena- ren bat eta Paraguai, adibide bat jartzearen. Andorran rola boteko luke. Hui da, zerga- rik gabeko elektronikoa, taba- koa, alkohola eta antzeko beste zenbait gai lortzeko aukera merkea.

Zubira iritsi ginenean, muga zorramena irudituz zitzaigun. Inoze ikusaz gabeko mugimen- dia zegoen, ehunka kamioi, neu- miak moto eta batek daki zenbait jende batetik bestera. Paraguaiako jendea hobeto or- dandua den Brasl aldeko lan- postutik zetorren, eta Brasljo- ak, ordea, merkagoak diren erosketak egitirik. Zorramen hartan, lapurrak eta trafika- zitateak ziren etiken handiena ateratzen zituzk. Bai alde ba- teko eta bai beste botelek ez- ikusiarena egiten zuten bitar- tean, batzuek sokan bitartez zubitik behera kaakak jaitzen



Alta Gracia. Paraje osasuntsuan kokatua, turismo bidet eta arras gaitasunak dituzteren edgune garrantzitsua da. Manuel de la Falla eta Che Guevara izan dira hango ohorezko bidanietako batzuk. r. r.

ren, ez genuen inongo indarke- taria hurbildu ginen Paraguai- ko muga aldera. Parana ibai gaineke Puento de la amistad izeneko zubiaik elkar-tzen dituz Brasil aldeko Pto. de Iguazu eta Paraguai aldeko Ciudad del Este- ni hiritak. Gaur egun, Merkuru izeneko hitzarmenaren ondo- tziotz, Brasl, Paraguai, Argenti- na, Uruguai Txilieren arteko mugek badute merkataritza haremaren bat; Europako Bati- sunaren antzeko zerbait, baina ez askatasun gurtzekin. Gaine- ra, herrialde bakoitzaik babu bere hizlagunarekin komena- ren bat eta Paraguai, adibide bat jartzearen. Andorran rola boteko luke. Hui da, zerga- rik gabeko elektronikoa, taba- koa, alkohola eta antzeko beste zenbait gai lortzeko aukera merkea.

Zubira iritsi ginenean, muga zorramena irudituz zitzaigun. Inoze ikusaz gabeko mugimen- dia zegoen, ehunka kamioi, neu- miak moto eta batek daki zenbait jende batetik bestera. Paraguaiako jendea hobeto or- dandua den Brasl aldeko lan- postutik zetorren, eta Brasljo- ak, ordea, merkagoak diren erosketak egitirik. Zorramen hartan, lapurrak eta trafika- zitateak ziren etiken handiena ateratzen zituzk. Bai alde ba- teko eta bai beste botelek ez- ikusiarena egiten zuten bitar- tean, batzuek sokan bitartez zubitik behera kaakak jaitzen



TOLOSA ▶ GIZARTEA

Datorren urtera arte

Eskualdera etorritako sahararrei agur esan zieten atzo

IÑIGO TERRADILLOS

Bi hilabete gure artean izan eta gero, iritsi da aurten ere saharar haurrei agur esateko unea. Datorren osteguna izango dute desertuko kanpamentuetara abiatzeko eguna, baina atzo egin zitzaizen adiorako ekitaldi ofiziala.

Goizetik saharar erara egini-ko tea hartzeko aukera izan zen plazan jarritako haima berezian; horrela, alfonbra gainean jazarrita hainbat lagun bildu

ziren, hura dastatu eta sahararekin solasean aritzeko parada izan zutelarik. Bertako musika ere entzungai izan zen egun osoan, eta argazkien erakusketa ere ikus zitekeen. Aldi berean, jendeak eskuragai izan zituen kamisetak nahiz Saharako hainbat produktu. Eguerdian, berriz, adiorako ekitaldi ofiziala egin zuten, bertan izan zirelarik Fronte Polisarioko delegatua, Ana Lozano, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria, Jokin Bildarratz To-

losako alkatea, aurtengo saharar gaztetxoekin etorritako begiralea eta Ana Trapero Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkarria. Haurrak agurtu zituzten eta ondoren opariari banaketa egin zuten.

Bazkarirako unean, sahararren nahiz bertakoekin artean 70 bat lagun elkartu ziren Abastosen. Ederki bazkaldu eta solasean aritzeko aukera izan zuten bertan bildu zirenek, eta gaztetxoek, berriz, jolaserako tartea ere izan zu-



Plaza Berrian, atzo saharar haurrei egini-ko agur ekitaldia. I. TERRADILLOS

ten bazkalostean haientzako jokoak antolatu baitzituzten.

Eguzkiaren indarragatik Saharan bertan kokatu zela festa

zirudien atzokoan. Egun polita izan zen, eta baita tristea ere askorentzat, agurrak hori baitakar berarekin.

TOLOSA ▶ FUTBOLA



Tolosa CF-k eta Agurainek atzo Berazubini jokatu zuten partidaren une bat. I. GARCIA

Berdinketarekin konformatu behar

Agurainen aurka jokatu zuen atzo Tolosa CF-k denboraldiko lehen partida Berazubini; banako berdinketa lortu zuten

IMANOL GARCIA

Emaitza hobea gero lortzeko aukera izan zuen atzokoan Tolosak, baina banako berdinketarekin konformatu behar izan

zuen Agurainen aurka. Aurtengo denboraldiko estreinako partida izan zen Berazubini.

Partida guztian zehar jokoa menperatu zuten etxekoek, baina zenbait aukera garbi ez zituzten aprobetxatu. Tolosarrak sartu zuten lehenengo gola, 31. minutuan, Orueren fal-

ta jaurtiketa Irazustak buruz sarera bidali eta gero. Lehenengo zatiko azken minutuan berdindu zuten aurkariak, Borjaren bidez, defentsaren hutssegiteaz baliatuz. Bigarren zatia nahiko eskasa izan zen, egindako beroak bi taldeetako jokalariei kalte egin baitzien.

ANOETA ▶ GAZTE EGUNA



Giro ederrean ospatu dute V. Gazte Eguna aurten ere

I. Terradillos ▶ Bosgarren urtez jarraian, Anoetako Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna izan zuten atzo. Goizean goizetik makina bat ekitaldi izan zituzten; gosarian urteko balantzea egin zuten eta eguerdian, beroari aurre eginez, sagardo dastaketa izan zuten. Arratsaldean, berriz, bazkariaren ostean jokoak izan zituzten, ondoren fronteniseko finala jokatu zuten, eta amaitzen kalejira. Afaria eta gero kontzertuarekin luzatu zen festa. I. I.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. Laguna, bikotekidea, ama, aita, osaba, izeba, amona edo aitona zoriandu nahi duzula? HITZA egunkarian argitara ematen diren zorion agur guztiak Interneten ikusteko aukera duzu; aski duzu bere webgunera sartzearekin!

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonoan.

Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan lortzeko aukera

943 65 01 93 telefono zenbakira [deituz gero.](#)

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira [deituz gero.](#)

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udaletxerako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira [deituta.](#)

TOLOSA ▶

Onddoen eskaintza ezin hobea izan da aste honetan

Eguraldia dela-eta igo egin da izugarri ziza horien eta kuletroen kopurua azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azokan ikusitako en artean, perretxiko eta onddoen eskaintza aipatu beharra dago. Eguraldia dela-eta igo egin da izugarri onddoen kopurua azokan, eta hauekin, kuletroak eta ziza horiak ere igo dira. Onddoek 22 eta 10 euro artean balio zuten; kuletroa 22tan saltzen zen, eta ziza horia 12 eurotan.

Barazkien zerrenda ere oso zabala izan zen: tomatea, lekak, azenarioak, espinaka, Ibarrako piparra, brokolia, lextua eta tipula, adibidez, oso egoera onean zeuden. Berdura plazan ez zegoen berrikuntza handirik. Baratzerako landareen postuetan negura begira jarri dute beren eskaintza eta apaingarriko landareen postuetan eguraldien aldaketaren zain dira espezie berriak aurkezteko.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Lilia	1,20	-
Porrua	2,40	-
Orburua	0,60	-
Lekak	0,35	0,40
Perrexila	0,05	0,06
Dhalia	2,30	-
Gernikako piperra	0,20	-
Kizkur aza	6,00	-
Erromerua	4,00	6,00

Bertako produktuak

Ziazerba	1,00	1,50
Tolosako babarrun	8,00	12,00
Tomatea	2,00	2,50
Kalabaza	1,50	3,00
Irasagarra	3,00	6,00
Ardi gazta	12,00	14,00
Behi gazta	7,50	7,50
Ardi-behi gazta	11,00	-
Indioilarra	4,30	-
Ahatea	2,50	-
Arrautzak	1,30	2,10

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Inkaurra	4,00	6,00
Dilistak	2,40	-
Baraturia	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Ogia (800 gr.)	2,55	-

ELDUAIN-LIZARTZA ▶ JAIK



Lizartzako Lizardi txistulari taldeak atzo goizean herrian zehar kalejira egiten. I. TERRADILLOS

Lizartza eta Elduian, herriko jaietan erabat murgildurik

Eguraldi eguzkitsua lagun zutela, hainbat ekitaldi izan ziren bi herrietan; gaur pilota partidak izango dira, besteak beste

I. GARCIA - I. TERRADILLOS

Jaietan erabat murgilduta daude eskualdeko bi herri; Elduian eta Lizartza, hain zuten, eta atzokoan eguzkia lagun izan zutelarik ekitaldi ugari izan ziren bietan ere.

Lizartzan, goizean goiz, bertako Lizardi txistulari taldeak herri osotik egindako kalejirak ohartarazi zituen biztanleak festarako unea zela. Arratsaldean gazteboenek ederki igaro zuten haientzat prestaturiko jolasekin, eta, iluntzean, berriz, sagardo dastaketa egin zuten. Manifestazioaren ostean musika izan zen protagonista goizaldera arte; Sarako gaztetxeke BKBO taldeak eta Donostiako Raiz-X-ek jo zuten lehendabizi, eta, ondoren, Tolosaldeko Maitana eta Aiorak zabaldu zituzten trikiti doinuak.

Elduainen arratsaldean eman zieten hasiera jaiak. Kanpai hotsak entzuten zirela, Bittor Muñagorri alkateak eta Mari Jose Karrera kultur zinegotziak bota zuten suziria. Ondoren, Mokolo eta Poxpoloren emanaldia izan zen. Haur andana bildu zen pailazoan ikuskizuna jarraitzera. Gauean, Abiba diskojaia izan zen. Gaurkorako, aipatzekoak dira profesionalen arteko pilota partidak eta Berastegiko motozerralarien ikuskizuna.



Elduingo alkatea eta kultur zinegotzia, atzo, suziria botatzen. I. GARCIA

GAUR ▶

ELDUAIN

10:00. Meza Nagusia.
11:00. Sardina jatea, sagardo eta txakolinarekin.
12:00. Profesionalen arteko pilota partidak.
15:00. Puzgarriak pilotalekuan.
18:30. Berastegiko motozerralariak.
20:00. Izer eta Alabierren eskutik musika emanaldia.

LIZARTZA

10:00. Goiz deia Karobitxulo trikitilariarekin.
12:00. Pilota partida.
13:00. Otsalar herriko dantza taldea.
14:30. Zikiro jatea.
Ondoren. Etxabe anaien emanaldia.
19:00. Herri kirolak: besteak beste, sokatira, trontzalariak, harrijasotzaileak...

TOLOSA ▶

1992an eta 93an jaiotakoei deia taldean sartzeko

Tolosako saskibaloitaldeak deialdia egin die 1992an eta 1993an jaiotako gaztetxoiei taldean aritzeko izena eman dezaten. Kirol horretan sakondu aurretik proba egin nahi dutenek datorren asteazkenean, hilak 7, dute hitzordua, 17:00etan, Usabal kirolgune berrian. Izena ere bertan eman behar dute interesa dutenek.

TOLOSA ▶

Udaberriko haurren zerrendak ikusgai

Udaberri dantza taldeak jakinarazi nahi du haurren zerrendak jadanik ikusgai daudela lokaleko atean. Zerrenda horien bidez jakin ahalko da zein talde eta egun dagozkion taldeak bakoitzari. Bestalde, entseguak irailaren 16an eta 17an hasiko direla azaldu dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Herialdea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 4a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Elduain. Hilaren 8an egingo den herri bazkarirako txartelak salgai dira dagoeneko, 20

eurotan. Izen-ematea, udaletxean.

Tolosa. 1955ean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituztenen festa ari dira

prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa: 650 693540 (Santi Belloso), 630 908045 (Joaquin Odriozola) eta 669 828818 (Angel Garcia).

Tolosa. Udaberri dantzari taldeko entseguak hilaren 16an eta 17an hasiko dira. Zerrendak ikusgai daude Udaberriko lokaleko ateetan.

Tolosa. Usabal kirolgune berriari zabaldu eta instalakuntzez gozatzeko aukera dago, dohainik, hilaren 7a arte.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Rosa Maria Ruizen pintura lanak ikusgai daude Sorron koadro dendan irailaren 15a arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaro azuenea. 943 67 51 18.

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

Bihar

Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza,... argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



ZORIONAK

Uxue. Bihar 6 urte. Aitaboa, amaboa eta Aneren partetik.



ZORIONAK

Gaur aitonen urtebetetze eguna, bihar Ikerrena eta datorren igandean Unairena. Ondo, ondo pasa eta muxu handi bana ebekoen partetik.



ZORIONAK

Saioa Ugowe Batza. Gaur urtebete. Aiton-amoneta eta gurasoen partetik muxu handi bat.



ZORIONAK, HAIMAR

Orendaingo eta Ikaztegieta lagunentz! Jo ta ke askatasuna lortu arte!